

AURKIBIDEA
2010-1/2

AZTERKETA LITERARIOAK

Piarres AINTZIART. Leon Pochelu	5
Pako SUDUPE . Kontagintza. Sarrera	15
Pako SUDUPE. Kontagintza (I)	23
Patxi SALABERRI MUÑOIA. <i>ABC, edo christinoen instructionea</i> (1571) .	111
Pello OTXOTeko. Kitsch-aren erresuma edo artea espektakulu hutsa bihurtzen denean	139

SORKUNTZA

L.M. MUJICA URDANGARIN. Melquiades Romero maisua, 1947an	145
L.M. MUJICA URDANGARIN. Poetaren desilusioak	151

ITZULPENAK

Bertolt BRECHT - (Itzulpena: Sara Malo). Burges ttipien zazpi bekatu buruzagiak. (<i>Die sieben Todsünden der Kleinbürger</i>)	159
Hasier AGIRRE. Miroslav Krleža	171
Sara ARANBERRI. Jose Olivaren Larrondo 'Tellagorri': lau testu euskaraz	175

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Iñaki ZUBELDIA. Fernando Morillo	189
--	-----


ADABAKIAK

Juan Martin ELEXPURU. Iruña-Veleiako "auzia"	227
Juan Martin ELEXPURU. Iruña-Veleiako auziaz zenbait gogoeta	249
Juan Martin ELEXPURU. Ostrakak eta ostrukak	257
Jose Mari URKIA. Agur eta ohore Jose Maria Aycart Jauna	259
Jose Mari URKIA. Jose Garmendia Arruabarrena, RSBAP/EAEko Adiskidea	263

KRITIKAK ETA ERRESEINAK

Julen AZPEITIA. Filosofia gustuko baduzu....	271
--	-----

EGAN



809.69 + 891.69 (05) EGD

F. UASCA

4. 01. 2011

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETINA"-REN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Salla
3.263 Postakutxatila — DONOSTIA

ABC, edo christinoen instructionea (1571)

Patxi SALABERRI MUÑOA

Sarrera

Erakargarri bezain interesgarria gertatu da betidanik *ABC, edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin* izeneko liburuxoak (P. Hau[]tin, Arroxela, 1571) bere orrietan eskaintzen duena¹. Erakargarria, besteak beste, gainontzeko euskal liburu klasiko gehienak ez bezala, honako hau haur eta gazteak gogoan hartuta burutua izan zelako –ez, inoliz adierazi moduan, beraiei bakarrik zuzenduta–; eta interesgarria, orobat, Leizarragak *TB*kotik aldentzen zen hizkuntz hau (ez oso) desberdin bat ballatuz kaleratu zuelako.

Haur eta gazteak ikusmiran izatearen aitzakiak emanarazi zion liburuari ezaugarri duen formatu didaktikoa eta arina, atal laburrez osatua eta, ia oso-osorik, buruz ikasteko eta erraz oroitzeko modukoa. Baina ez zen hori izan, noski, Leizarragak asmatutako formula, bestetik garraiatua baita lurralde kalbindarretan oso arrakastatsuki hedatua zen eredu nagusia. Beskoiztarrak berak aitortzen du beste hizkuntzetan idatzita zegoen liburua euskaraz ere izateko premia honakoa dioenean: “*necessario estimatu ukan dut ABC haur berce instructionerequin Heuscaraz – ere iar ledin*” (*Abc*, A2; Leizarraga, 1393). Alabaina, eta nahi beste prebentziorekin bada ere, zinez au-

[1] Obra honen ale bakarra Pariskoa da (Bibliothèque Nationale de France, Arsenal, T. 5971 Rés.). Gure eskerrik beroenak haren kopia elektronikoa erabiltzeko aukera eskaini digun Euskaltzaindiko Azkue Liburutegiari.

rrera daiteke bere "ukitua" ere eskaini ziola gure autoreak liburu-ttoari.

Prebentzio hitza darabilgu liburu eklektiko honen "ukitu" propioaz mintzatzean, zeren eta egia baita ezen, beronen eredu zehatzaren bilatze-lana arazotsua gertatu ohi den arren, ikertzaileek gogoratu legez, "ces ABC sortent régulièrement à coté du manuel de Calvin [1542ko *Catechisme* izenekoaz ari da]" (Peter 1965, 20). Iturri bakarra, baina, aldi berean, aniztasunaren iturri: "l'abécédairaire genevois est en somme un catéchisme élémentaire de Calvin [...], et les exemplaires qui subsistent montrent qu'il y en avait de divers types. Mais tous ont le même plan, celui de l'ancienne tradition genevoise, et tous donnent avec l'arrivée de Calvin des textes du réformateur, voire des textes prévus par lui pour ces livrets" (*idem*).

Ildo horretan, eta ortodoxia doktrinalaren esparrutik hastandu gabe bazen ere, ohiko samarra izan zuten kalbindarrek, aurretik argitaratutako materialez baliatzea eta aurpegi berriko argitalpen osatua-goak kaleratzea. Batik bat, *Abc* moduko liburuxka, nola esan, "anitzen" kasuan. Erantsi beharrik ez dago eklektizismo eta eduki-aniztasunerako joera hori edizio-apailatzaileen originaltasun-senaren "hankatxoa" erakusteko akullu ere gertatu zela sarritan.

Hala adierazten du Peter-ek François Jaquy inprimatzaileak 1562an argitaratu zuen *Instruction des chrétiens* izeneko liburuaren hitzaurreko hitzetan oinarriturik: "Il ressort de ce texte qu'à Genève, au XVI^e siècle, le catéchisme de Calvin, pour classique qu'il fût, n'avait pas le monopole, mais que l'enseignement religieux y était diversifié" (1965, 12; gurea da letrakera etzana)².

Liburu-mota haien edizioen arteko desberdintasunek ere ez dute besterik erakusten.

Azken aldian burututako erkatze-lanek, esaterako, garbi azaleratu

[2] Eta honako hau eransten du: "Il est question de sommaires qui devaient faciliter la mémorisation et le témoignage personnel, et qui avaient pour plan l'oraison dominicale, la confession de foi et les dix commandements. De plus l'imprimeur nous présente le livre qu'il vient de tirer sur ses presses comme une amélioration des sommaires existants, car son auteur y aurait ajouté le petit catéchisme et des citations scripturaires plus nombreuses et mieux groupées" (*idem*, 12; gureak dira letra etzanak).

dute, batetik, *Abc* izeneko liburu kristau horiek uste baino edizio gehiago izan zutela urteetan barrena eta, bigarrenik, alde aurretik pentsa zitekeena irauliz, edizioak gutxitan suertatu zirela haien artean berdinak; antzekoak bai, baina berdin-berdinak ez.

Hortik, nonbait, Leizarragarenaren antzeko izenburukorik eta egiturakorik aurkitzea, baina ez, guk dakigula, eduki berekorik.

Nekez espero daiteke, beraz, euskal *Abc* honen genealogiaren osatze-nahia asetzea. Gehienik ere, ustezko iturri-eredu orokorrak antzemateko eta, funtsezkoago dena, liburuaren egitura eta ariera ulertu ahal izateko gakoetara hurbiltzea izango da saria.

ABCen historia-zantzuak

Argitasunik ekarriko bazaio beskoiztarraren *Abcari*, nahitaezkoa da kristauen heziketarako prestatutako liburu-mota horren bilakaerari begiratu bat ematea, exhaustibotasun asmorik gabe bada ere³.

Erdi Aroko kateketikarekin dituzten loturak gorabehera, Erreformaren lehen garaletan finko errotua geratu zen tradizio genevar garbia atzeman uste du R. Peter-ek abezedario erako hauen bilakera eraikitzean. Katea bereko begiak ikusten ditu ikertzaileak aurretiko gisa⁴ et des extraits de l'office de la Vierge avec le "(Peter 1965, 15).. Eta maila bereko kate-begitzat ikusi izan dira, baita ere, geroztik agertu eta aztertutako *Abc* berriak.

Haletako esanguratsuen, eta agian aurretikoen artean garrantzi gehien izan zuena, Kalbinen lehengusu Robert Olivétan-en *L'instruction des enfans* ezarri ohi da⁵. 1533an inprimatua, "ce livret français enseigne non seulement les lettres, la grammaire, les accents,

[3] Hemen zeharka baino ez dira aipatuko honelako liburu protestanteen historiarako kontribuzioa egiten ari diren Hauser, Peter, Soullé, Carbonnier-Bukard eta beste hainbat ikertzaileren emaitzak. Gogoratu behar da, halaber, hainbat liburu eta edizioen berri albiste solte eta ez beti oso ziurren bidez iristen zaigula tamalez.

[4] 1530. urtearen inguruan kokatzen du lehendabiziko kate-begia: "Vers 1530, l'éditeur Gabriel Pomar [...] publie à Genève un livret scolaire en latin comprenant un alphabet, le ter Noster

[5] *L'instruction des enfans, contenant la manière de prononcer et écrire en francoys. L'oraison de Iesus Christ. Les articles de la foy. Les dix commandemens. La salutation angelique*, Geneva, [Pierre de Vingle], 1533.

l'apostrophe et les chiffres, mais aussi les rudiments de la foi, les dix commandements et la salutation angélique⁶" (Peter 1965, 16).

Izenburua zertxobait aldatuak kaleratu bazen ere, Olivétan-en liburuak bigarren edizio berdin bat izan zuen 1537an, Genevako Jean Gérard-en etxean⁷.

Historiak historia, zerrenda luze samarra azaltzen da erlijiozko Abc hauen ibilbidean. Zenbaitetan, horrelako obrek in ohiko bilakatu zen bezala (ez baitziren edonolakoak izan Kontrarreformak haien aurka ere erabilitako armak), izenburuaren berri baino ez da iritsi eguntara. Lehenetakoa izan zelako edo, ospetsua da Sorbonak 1545ean zentsuratu zuen Abc delako hura, nonbait 1544an Parisen bertan argitaratutako *ABC pour les enfans* izenekoak. Baina edizio debekatu, zentsuratuen eta sutara jaurtikitakoen zerrenda areagotu besterik ez zen egin hurrengo urteetan⁸.

Errepresioaren bide malkartsu haien inguruan ibili zen, halaber, 1556an Mimes-en salatua izan omen zen hamalau orrialdeko *ALPHABET ou INSTRUCTION Chrestienne pour les petits enfans* (1555, Lyon, Pierre Estiard) izenekoak ere⁹.

[6] Autoreak erantzen duenez, aurreko urteetan Pomar-ek (c. 1530) eta Koelnek (1532) beraien abezedarioetan inprimatutako "liturgie mariale" delakoari emandako erantzun protestantea izan zen azken otoiak hori.

[7] *L'instruction des enfans, contenant la maniere de prononcer et ecrire en francoys. Les dix commandemens. Les articles de la foy. L'oraison de Jesus Christ. La salutation angelique*, Geneva, Jean Gérard, 1537. Izenburuaren antolamendu berriak Kalbinen lehen katiximako eduki-ordenari (legea-fedea-otoitza) segituko zitzaioala ematen duen arren, ez da horrelakorik gertatzen, aurreko edizioarenak bezalakoak baitira argitalpen honen plana eta testua. Deskribapen zehatzago baterako, ikus A. A. 1979, 385-391.

[8] Leizarragaren edizioen garaikide suertatu zen Anverseko *Index* delakoa dela eta, Martinez de Bujandak (1988, 269-270) honako liburu hauek ematen ditu, esaterako: *L'ABC ou instruction chrestienne pour les petits enfans* (1558, Anvers, Christophe Plantin, in-8°, [88] pp.), *L'ABC ou instruction chrestienne pour les petits enfans... Avec l'instruction chrestienne de... Pierre de Ravillan* [Jean Taffin-en pseudonimoa, nonbait] (Anvers, Ch. Plantin, 1558. Handik lau urtera, 1562an, erreinpresio bat izan zuen Anverseko Willem Silvius-enean), *ABC et chrestienne instruction bien utile* (1562, Geneva, Antoine Davodeau eta Lucas de Mortière, d.g. -1562-; antza denez, obra hau Tournai-n ere izan zen "zentsuratua" - jendaurrean errea-1569an]). "Autre édition" bat ere alpatzen dute autoreek Anverseko Indizearen barruan, hots, Jean Crespin-ek 1568an Genevan kaleratu zuena.

[9] Hura bezalako edizioa izan zen *Alphabet ou Instruction chrestienne, pour les petis enfans. Nouvellement revenue et augmentée de plusieurs choses* (1558, Lyon, Pierre Estiard).

Martinez de Bujandak erakutsi legez¹⁰, zail zuten liburu haiek Frantzia katolikoak hedarazi zuen jazarpen inkisitorialaren atzaparretatik libratzea. Baina, patuak patu, agerian da ibilbide desberdinak izan zituztela urteen harian, ez guztiak izan baitziren zentsuratua, ez denak desagerraraziak.

Ildo horretan, Genevan eta Lyonon kaleratutako ezagunen artean, badira batzuk, lehen hurbilpen baterako bederen, gogora ekartzea merezi dutenak.

L'ABC françois (1551 [J. Crespin, Geneva]) izenekoak¹¹, esaterako, Leizarragarenak erakutsiko duen egitura orokorraren lehen hurbilpentzat har liteke, abezedarioa hasieran eta batetik ehunera bitarteko zenbakiak amaieran eskaintzeaz gainera, edukiak ere aski antzekoak baititu oro har (otoitz nagusiak, unean uneko otoiak, katiximatxoak, etab.).

L'A.B.C. ou manière d'instruire les enfans (d.g., Lyon). 12 orrialdekoa in-16 (BPF R. 7847). Badu abezedario moduko bat (5. orrialdera arte) eta "l'Oraison dominicale, le Credo, puis l'exercice du père de famille [a] tous ses domestiques pour prier au matin; des prières pour le matin et pour le soir". Agian datu horien arabera antzeman liteke argitaratze-data, izan ere, "l'exercice du pere de famille" 1560-62an tartekatuta baitzen liburuetan¹².

Urruntasunak -eta ez dira gutxi- urruntasun, ez dago Leizarragaren obraren kontzeptuotik ere urruti *L'A.B.C. ou INSTRUCTION des Chrestiens* (d.g., 1563) liburukotea (ia hirurehun orrialdekoa).

Soulié-k zehazten duen bezala, "Recuelli de toutes les autres impressions par cy/devant faictes [...] l'alphabet très soigné qui manifeste un souci de progression dans l'enseignement occupe les pages 3 à 8. À partir de la page 9 commence toute une intruction religieuse qui reproduit l'ordre des abécédaires génevois mais avec d'abondants commentaires des commandements, un ensemble de prescriptions morales tirées des Evangiles et surtout des épîtres, et

[10] Ikus haren *Index des livres interdits*, 1984-1996.

[11] Osorik transkribatua in Peter 1965, 22-42.

[12] Datu hori dela eta, Antoine Davedeau eta Lucas de Mortière izeneko inprimatzaileek Genevan argitaratu zuten *ABC et chrestienne instruction bien utile* izenekoaren edizioa ere urte horietakotzat hartu izan da.

qui ne se rapportent plus à l'éducation d'un enfant [...]; de plus la disposition de l'alphabet dans l'A.B.C. de 1563, très semblable à celle de l'A.B.C. *françois* de 1551 que R. Peter décrit et reproduit dans l'article cité, confirme l'origine genevoise de cet A.B.C." (Soulié 1980, 167-168).

Baina, berriz ere, atal zenbaitetan beskoiztarraren liburua estilo berekoa izateak ez du ezer berezirik erakusten, ez behintzat ustezko iturri, eredu edota erreferentziez mintzatu ahal izateko.

ABCen egitura eta leizarragarenarena

Nekez pentsa daiteke Leizarragak edozein obratik hartuko zuen bereetara garraiatzeko materiala, izan ere, eliza erreformatuak berehala atzeman eta eragotzi baitzituen abezedarioak bezalako argitalpen xumeetatik sor zitezkeen nahasmendu doktrinalak¹³.

Ildo horretan, Geneva aldeko *Abc* izenekoek egitura aski itxia izan zuten formari eta planteamenduari zegokienez. Horren eraginez ziur asko, plan orokor moduko baten inpresioa islatzen dute haietako askok eta, aldi berean, hainbat puntu finko, edizio batetik bestera aldatzen ez ziren puntuak hain zuzen¹⁴.

Peter-ek aztertutako lau liburuetan, esaterako, honako hau aurkitu zuen: "Tous les quatre livrets sont des manuels scolaires élémentaires, conçus d'après le plan suivant: "1) Alphabet; 2) Oraison dominicale, Symbole des apôtres et Dix commandements; 3)

[13] Liburuxka haletako dotrina-galdeketak nahasgarri bezain heretiko suerta zitezkeela eta (halakotzat jo izan zen Vincent Brès-ek 1562an argitaratutako *Les demandes faites par les Ministres de l'Eglise de Genève aux enfants qui se presentent pour estre receus à la sainte Cene*), arreta berezia jarri izan zuten hasieratik arlo doktrinalean. Calvinen adibidea ezin adierazgarriagoa da: halako arriskuak saihesteko, 1553ko *La maniere d'interroger les enfans* izeneko eraberritua –zehatzagoa eta, doktrinaren aldetik, argiagoa– kaleratu zuen gero 1562an. Brès-ena, esan beharrik ez dago, bahituta geratu zen hurrengo urtean (Jostock 2007, 101-hk).

[14] Ezin ahaz daiteke Abcetan egituratuta ematen zen material hori bera desberdin antolatua ager zitekeela gero beste obra batzuetan. F. Estiennek 1567an argitaratu zuen *Les Pseaumes mis en rime* delakoari, adibidez, frantsesezko otoitza eklesiastikoen forma, 55 igandetarako katixima luzea, ohiko otoitzak, interrogatzeko manera edo katixima laburra (orrialde bakarrekoal), fede-konfesioa eta, azkenik, kalendreraren erantsi zitzaizkion osagarri gisa.

Prières à réciter chez soi ou à l'école; 4) "Petit traicté nécessaire à ceux qui veulent communiquer à la sainte Cene de nostre Seigneur", aussi appelé dans les éditions de 1568 et 1630: "Recueil des principaux poincts que doyvent scavoir ceux qui veulent communiquer à la sainte Cene de nostre Seigneur Iesus Christ"; 5) "La maniere d'interroger les enfans qu'on veut recevoir à la Cene de nostre Seigneur Iesus Christ"; 6) *Eléments d'arithmétique*" (1965, 14 or.).

Oro har, Leizarragaren *Abc*ak dakarren eskema Peter-ek atzemandako genevar hura bera da¹⁵. Ikertzaille berak nabarmendu zuen, "l'éditeur, Jean de Liçarrague, presente ici en langue basque les matières suivantes: 1° Alphabet et premières notions de grammaire; 2° Notre Père, Symbole des Apôtres, Dix Commandements, Sommaire de la Loi et trois citations bibliques; 3° Liturgie pour culte familial; 4° Catéchisme de Calvin; 5° La manière d'interroger les enfans qu'on veut recevoir à la sainte Cène; 6° Définition de certains termes dogmatiques; 7° Confession de foi (en 40 articles); 8° Premières notions d'arithmétique" (Peter 1965, 21, 35. oharra).

Egun Parisko BNFn gordetzen den ale bakarrean ikus daitekeen bezala, *TB*ren baitan ere dauden *Catechisme*a eta *Confessione*a barneraturik argitaratu zen *Abca* (bi-biak beste formatu batean inprimatuak eta aldaketa batzuekin¹⁶ *diren, ezbalirade ezpalira, etab.*); -*ey* forma), nahiz eta, jakina denez, Linschmann – Schuchardt-ek, lanok ez errepikatzeke xedearrekin, haiek gabe prestatu zuten *Abc*aren edizio ezaguna.

Guztiarekin ere¹⁷, aipu biblikoek¹⁸ eta hitzaurre gisakoak¹⁹ gainera, honako atal hauek osatua da beskoiztarraren *Abc* ezaguna:

[15] Kontsulta-eragozpenak arintzeko, *Abc* honi dagozkion erreferentziak bi modutara eskainiko dira: Parisko alearen kaleratxoaren jatorrizko paginazioa aipatuz (kaierari dagokion letra larriari orrialdearen zenbaki arabiarra erantsiko zaio; orriaren ifrentzua "v" batez –"verso"– adieraziko da) eta, ondoren, "Leizarraga" jarririk, haren obra guztiak jasotzen dituen Linschmann – Schuchardt edizioko orrialdeak erantsiz.

[16] Vinsonek lehenengo (1891-1898: 1984, 43-44) eta Schuchardt-ek geroago (Ikus Leizarraga, 207-hk) ohartarazi zuten garrantzitsuenez: *TB*ko *dirade* guztiak (ez da falta oharkabeko salbuespenik) *dira* eredupean azaltzen dira *Abcan* (*diraden*

[17] Azpimarra bedi Linschmann – Schuchardt-en edizioak *Abc* barnean ez dakartzan bi lan horiek ez dutela Peter-ek finkatutako eskema deuseztatzen, nahiz eta, hark laburtu bezala, "nous avons ici un livret qui sous chiffres 1 à 5 et 8 représente une espèce de fusion du catéchisme élémentaire de Calvin et de son manuel" (Peter 1965, 21, 35. oharra).

- Alfabetoa edo dei daitekeena (or.: A.3 v eta A4; Leizarraga, 1396-1397).
- Otoitza-Fedea-Legea hirukoa, hots, "Oraison dominicale" delakoa, Apostoluen Sinboloa eta Hamar Aginduak (or.: A4 v -[A6 v]; Leizarraga, 1398-1402).
- "Aita familia fidel baten bere etheco guciequilaco exercitioa eta laincoari otholtz egulteco formá" izenburupeko otoiz sorta luzea (or.: [A7] - [B6 v]; Leizarraga, 1403-18).
- *Catechisme*, *cein erran nahi baita, lesus Christen doctrinán haourrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta haourrac ihardesten* (or.: [B7] - [H6 v])²⁰.
- "Iesus Christ gure launaren Cena saindura recebitu behar direnén interrogatzeco manerá" izenekoa, hau da, katixima laburraren formatua duen elkarrizketa pedagogikoa eliz ministroaren eta "Cena" delako liturgiara hurbildu nahi duen haurren artekoa (or.: [H7] - I1 v; Leizarraga, 1419-24).
- "Christino batec iaquiteco dituen punctu principalén definitio-neac eta descriptioneac" izeneko atala, oso laburturik bada ere, Kalbinen *Institutio Christianae Religionis* delakoaren oinarritzko edukia gogorarazten duena (or.: I2 - [I8 v]; Leizarraga, 1425-38).
- *Iesus Christ gure launaren Evangelioco puritatearen araura vicitzezo desira duten Franceséc Regueri* (or.: [K1 v] - K3 v) gutuna eta, ondoren, beronen jarraipena den *Iesus Christ gure launaren Evangelioco doctrina puraren araura vicitzezo desira duten Franceséc consentimendu commun batez berén fedez eguin duten confessionea* (or.: K4 - [L7 v])²¹.
- Oinarrizko aritmetika-ezagutza edo litzatekeena.

Esan bezala, liburuaren egitura berdinez mintzo gara, nahiz eta, beherago ikusiko den moduan, azal-aipamen-hitzaurrean desberdintasun aski atzeman litekeen.

[18] Orrialdea: [A1]; Leizarraga, 1391-92.

[19] Orrialdeak: A2 - A3; Leizarraga, 1393-1395.

[20] Euskaltzaindiko Azkue Liburutegian dagoen ale digitalizatuaren Ktri F1 v eta F2 orrialdeak falta zaizkio. Dena den, ez da hemen aztertuko.

[21] *Konfesionea* deitu izan dugun lan hau ez da hemen aztertuko.

Horregatik aurrera daiteke, Leizarragaren aitzinsolas propioa kenduta, gainontzeko atalez den bezainbatean, anitza eta eklektiko samarra azaltzen dela liburua, beskoiztarrak iturri bakar batetik edan izan ez balu bezala.

Edonola ere, ez dirudi Leizarragaren erreferente nagusiak 1562-koak baino lehenagokoak zirenik²² '92 exercice du pere de famille'.

Baina behean mintzatuko gara horretaz luzeago.

Leizarragaren ABCa atalka irakurtzen

Egiturak egitura, liburutto hau gaien arabera desglosaturik aurkeztuko balitz (eta hala egiteko iradokitzen du artikulu honen planteamendu didaktikoak)²³, lau bat atal nagusi nabarmendu beharko lirake, hots, hitzaurre modukoa den atala, atal gramatikala edo dei daitekeena, atal artimetikoa eta, funtsezkoena dena, atal doktrinala.

Hemen, azalpenaren argitasunerako, atal tematiko horiek hobe bisi nahi genituzke. Eta gai-atalon jatorritzko ondozkapenari zehatz-mehatz segituko ez bazaio ere, aipatu multzo bakoitzean aintzat hartuko dira barneko eduki guztiak eta haien arteko antolamendua.

Honatz gai-atelok banan-banan aurkeztuta.

Atarikoak

Atarikotzat hartzen ditugu lehen orrian ([A1 rº eta v]; Leizarraga, 1391-92) dauden osagaiak, hala izenburua bera nola gainontzekoak, tartean aipamenek garrantzi nabarmena dutelarik.

Alferrikakoa litzateke Leizarragaren obra honen izenburuari kontzeptualki —eta literalki— gehien hurbiltzen zaizkion frantsesezko izenburuak errepikatzen hastea. Abcen histori laburpena aurkeztean esandakora itzultzea besterik ez du irakurleak.

Abc horietako gehienek, dena den, gorago aipatutako egitura-ki-

[22] Besteak beste, urte hartan Jarri baitzaion atal haletako bati izenburu berria: "en 1562 [...] ceux-ci sont remplacés par une liturgie pour le culte familial intitulée: 7

[23] Aurreratu bezala, 1571ko edizioak barneraturik daramatzen *Katixima* eta *Konfesionea* ez dira hemen aztertuko.

detasunik baizik ez dute Leizarragarenarekin. Desberdintasunak, berriaz, azaleko aipamentxoetan beretan hasten dira nabarmentzen.

Bi ohar labur baino ez, halere.

Esan bezala, *Abc*etako sarrera-aipamenak ez dira beti berdinak, ildo berean jardun arren, autore-editoreek berek hautatzen baitituzte beren ustez edizio bakoitzari ongien egokitzen zaizkionak.

Leizarragaren kasuan, aipameneak badute konnetatzekorik. Lehendabizikoa, esaterako, Mateo 19, 14 delakotik jasoa da, nahiz eta beskoiztarrak erreferentzia gisa "MATTH. XIX." bakarrik erantsi. Harri-garriena, halere, aipamena berak itzultitako *TB*tik hartu ez izana da, ez behintzat zuzen eta literalki.

Honela dakar *TB*n:

"[...] Utzitzaçue haourtchoac, eta enegana ethortetic eztitzaçuela empatcha: ecen hunelacoén da ceruétaco resumá".

Honela, aldiz, *Abc*an:

"[...] Utzitzaçue haourrac, eta enegana ethortetic eztitzaçuela empatcha: ecen horrelacoén da ceruetaco resumá" (*Abc*, [A1]; gurea da letrakera etzana).

Bigarren orrialdean datorren aipamena ere, Ef. 6, 4 delakotik jasotakoa, era laburtuan emana da ("EPHES. VI.") eta, aurrekoa legez, *TB*ko bertsiotik zertxobait aldentua.

Honela dator *TB*n:

"Eta çuec aitéc eztitzaçuela provoca despitetara çuen haourrac, baina haz itzaçue instructionetan eta launazco remonstrationetan".

Eta honela *Abc*an:

"Eta çuec aitéc, hazitzaçue çuen haourrac instructionetan eta launazco remonstrationetan" (*Abc*, [A1 v]).

Haren azpi-azpian ezarria den "IACQUES. I" delako erreferentzia St. 1, 5-6 bertsetei dagokie eta laburtua ematen du Leizarragak *Abc*an²⁴:

[24] Haren *TB*k dakarren bertsiota honako hau da: "5. Eta baldin çuetaric cembeitec sapientia faltaric badu, esca bequió lancoari, celneç emaiten baltraue guciey benignoqui, eta ez reprotchatzen: eta emanen çayó. 6. Baina federequin esca bedi, batre dudatzen eztuela [...]".

"Baldin çuetaric cembeitec sapientia faltaric badu, esca bequió lancoari, eta emanen çayó, baina federequin esca dadin, batre dudatzen eztuela" (*Abc*, [A1 v]).

Adierazi bezala, frantsesezko edizioetan nekez aurkituko da berdin-berdinik.

Aipuen arloan Leizarragarenetik hurbil-edo dagoen liburu bat mahairatzekotan, gorago aitatu den *Alphabet ou Instruction chrestienne, pour les petis enfans. Nouvellement revenue et augmentée de plusieurs choses* (Pierre Estiard, Lyon, 1558) izenekoa izan liteke. Oro har, Leizarragak azalean darabilen aipamen neotestamentario bera dakar hark ere (Mateo 19, 14), nahiz eta erreferentzia oker emanda, "Mat. X" dela baitio harenak (ikus Hauser 1909, 274-hk.).

Horrezaz gainera, Leizarragak lehen orriaren ifrentzuan dakarren bigarren aipamena ere ("Ephes. VI") eransten du Estiard inprimatzailerak lehen orrialdean: "Pères, nourrissez vos enfans en la discipline et correction de nostre Seigneur".

Leizarragaren hirugarren aipamena ez dator liburu horretan, eta bai berriz, J. Crespinek argitaratutako *L'ABC françois* delakoan (Geneva, 1551), izan ere, hirugarren hura (eta beskoiztarrarena bezain laburtua) baizik ez baitakar bigarren orrialdean²⁵.

Desberdintasunen aniztasunaz ohartzeko, dena den, gogora bedi Crespinek 1568an kaleratuko zuen *L'ABC ou l'instruction des chrestiens* izenekoan, esaterako, Proberbioen liburura jo zuela azaleko aipamena jasotzeko; eta Paul Marceauk 1630ean titulu berdinarekin argitaratutakoak, berriz, Deuteronomiora, etab.

Datu hauek aski argi egiaztatzen dute, egitura finko bati atxikirik aritu arren, edizio-paratzaileek ez ziotela uko egin nolabaiteko "sormen" eta askatasun-puntua izateari.

Aitzinsolasa

Edizioen "nortasuna" nabarmentzeko ahalegin horretan, garrantzi handikoa ohi zen liburuak izan zitzakeen irakurleei zuzendutako gutuna.

[25] Horrezaz gain, lehenengo orrialdean, argitaratze-dataren gainean, *Eklesiastes* (*Kohelet*) izeneko liburuak 12, 1 bertseta azaltzen da.

Hartan xehe-xehe zehaz zitezkeen obraren xede eta norabidea, espero ziren hartzaileak, egile edo paratzaileak aurkitutako arazoak eta hartutako erabakiak, obra egokiro erabiltzeko aholkuak, etab.

Hari horretakoa da, jakina, *"Heuscal-Herrian gaztetassunaren iracasteco carguã dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoiz-coac laincoaren gratia desiratzen"* izeneko aitzinsolas gisakoa ere.

Haren funtsezko xedea, azpimarratu beharrik ez dago, *Abc* gehienak zerraitzan ildo berekoa zen: bereziki mintzakide ziren haur-gazteei –baina ez bakarrik haiel, "nazio" guztiari baizik– irakurtzen irakasteko metodo bat egokitzea eta, aldi berean, erlijio erreforma-tuaren oinarritzko corpus doktrinala eskaintzea. Beskoiztarrarenak dira hitzak:

"Berce natione guciéc, ceinec bere lengoagean beçala, Heuscal-dunak-ere berean duençat, certan iracurtzen ikas ahal deçan, eta nola laincoa eçagutu eta cerbitzatu behar duen" (*Abc*, A2; Leizarraga, 1393).

Mortasun-markatze horretan bada gainontzeko *Abc*etatik bereizten duen beste ezaugarri interesgarri bat, hots, aski modu pertsonalizatuan erredaktatu zuen Leizarragak gutuna, liburua euskaraz pres-tatzeko erabakia bere-berea izan zela erakutsi nahi izango balu beza-la: "necessario estimatu ukan dut, *ABC* haur berce instructionerequin Heuscaraz-ere iar ledin" (*idem*), "consideratione guehiago ukan dut" (*Abc*, A2 v; Leizarraga, 1394), etab.

Ondorioz, beskoiztarraren ekimenaren fruitu legez ulertu beharko litzateke zortzi urte lehenago egin zioten itzulpen-enkarguaren aberaste hura. Eta, agian, baita frantses erreferentzia eta ereduaren hauta-keta bera ere. Eta, zalantza gabe, hizkuntza-hautuen inguruko eraba-ki guztiak.

Azken honetan gaudela, ikus, esaterako, liburuan barrena erabili-ko zuen irizpide geolinguistikoaz aitzinsolas gisakoan diona:

"eta minçatzeco maneraz den becembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara" (*Abc*, A2 v; Leizarraga, 1394).

Dakigunagatik, Biarno erlijiosoki zentripetorantz apuntatzen zuen

lurralde euskalduna da/zen "religionearen exercitioa" zegien leku hura. Edo beste modu batez esanda, Leizarragak aurreikusia zuen zubereraren inguruko "hizkuntza-ereduak"²⁶ zerabiltzan jendea izan-go zela liburuaren hartzaile naturala eta nagusia.

Hortik, gero, liburuaren formulazio linguistiko berezia (*TB*ko "-ey" datibo pluralak "-er" bilakaturik, "dirade" formaren ildoko aditz guz-tiak "dira" erako bihurtuta, etab.), lexikoaren arloan salbuespen aski kontraesankor gisara agertuko zena, harrigarriro Leizarragak ez bai-tzuen *Abc* honetarako aintzat hartu berak "Çuberoan eta aldirietan" erabiltzen zela esana zuena²⁷.

Bada, azkenik, aitzinsolasean liburuaren erabilerarako eskaintzen den ohar didaktiko azpimarragarri zenbait. Honela mintzo zaie bes-koiztarra euskaldun haurrei irakasteko ardura dutenei:

"[...] iracasteco cargua duçuenác, hirur punctuz principalqui advertitu nahi ukan çaituztét. Lehena da, aitzinago hel daitez-quo, cer den vocala edo consonanta, diphthongoa edo syllabá, haourrér ikasten demboraric emplega eraci gabe, li-burutcho hunetaco formari simplequi çarreitzaten. Bigarrena, ungui eta trebequi lehen-vecitic letreyatzen haourrér iracats dieceçuen. Hirugarrena, iracurtzera datocenean, Colonaren, Commaren, edo Punctuaren differentiá ceric den, anhitz fun-datu gabe, hitzac distinctoqui eta claroqui pronuntia eraciz, paussuén eguiten costuma ditzaçue" (*Abc*, A2 v – A3; Leiza-rraga, 1394-95).

Lehen eta bigarren puntuek argitzapen berezirik behar ez badute ere (agerian baita zeinuak dekodetzen –letreatzen– ikastearean al-deko dela, eta bokal, silaba eta abarren inguruko teoria azaltzearen aurkako), hirugarrenak iruzkin labur baten premia du. Didaktika-puntu honetan ere, irizpide pragmatikoaren aldeko azaltzen da Leizarraga, hau da, arte erretorikoan usu erabili ohi ziren kontzeptuak²⁸ argitzen

[26] *TB*ren hasieran "Heuscalduney" zuzendutako gutunean idatzirik utzi zuen ezen "batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diversitatea den" (Leizarraga, 254).

[27] Ikus Leizarragak *Abc*aren egokitapenerako gogoan edo izango zuela pentsa zitezkeen "Çuberoaco herrian usançatan ezitraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzullac" atala, *TB*ri erantsirik datorrena (Leizarraga, 1213-14).

eta bereizten gehiegi ez sakontzearen aldeko. Beskoiztarrantzat aski da funtsezkoa jakitearekin, betiere, hotsak eta hitzak argi eta garbi ahoskatu ahal izateko eta, pausatzeak eta etenak behar bezala eginez, irakurtzen den testua ulertzeko moduan ebaki ahal izateko.

Aipatu berri dugun "funtsezko jakitea", esan beharrik ez da, estuki uztartua dago jarraian daraman atalarekin, guk, beste izenbururik ezean, atal gramatikal bezala identifikatu duguna.

Atal gramatikala

Iruzkindu berri den hitzaurrearen ondoren, euskarazko testuak irakurri ahal izateko "gakoak" ematen ditu beskoiztarrak bi orrialdetan barrena (A3 v eta A4; Leizarraga, 1396-97).

Alegia, gainerako frantses *Abc* kalbindarren ildoan, euskarazko alfabetoa eta beharrezkoak diren egokitzapenak dira bertan eskaintzen direnak.

Horrela, euskal alfabetoaz gainera (23 letra, hiru motatan erakutsiak: larria, italikoa eta xehea), diptongoak agertzen dira (beheranzkoak²⁹: ai, au, ei, oi, eta latinaren eraginez idatzita ager zitezkeen beste hiru: oe, ae, ou), "letra elkarri datchetzanac" (letra bikoitzak, alegia: ct, ff, etab.), laburdurak (batez ere, sudurkariaren falta adierazten duten zeinuenak eta latinezko partikulena), puntuazio-zeinuak (puntua, koma, azentua, etab.) eta, azkenik, kontsonanteek bokalekin (eta bokalek z letrarekin bakarrik) osa ditzaketen silaba guztien taula.

Adierazi bezala, atal honen erabilerarako "iradokizun" pedagogikoak liburuaren aitzinsolasean datoz.

[28] -Kontzeptu erretorikoak euskaraz azaltzen diren lehen aldian izanik, Leizarragak bereziki alpatzen ditu *periodosaren* atalak: *kolon* delakoa, hots, protasia edota apodosisa osatzeko moduko hiru hitzetik gorako multzoa; *komma*, hau da, *kolonaren* atala edota nolabaiteko autonomia sintaktikoa izan dezakeen hitza edo hitz-multzoa, eta, azkenik, periodoaren itxiera edo klausularekin lotua dagoen *puntua*.

[29] Nahik beste kultismo eta barbarismorekin jokatu bazuen ere, Leizarragak ez zuen goranzko (= erdal?) diptongorik aintzat hartu. Hurrengo orrialdean datorren silabarioan goranzko diptongoen itxura dutenak ("ia", "ie", "io", "iu") ez dira, izatez, "i"-ren grafiaekin idatzitako "j" kontsonanteak eta bost bokalek osatutako silabak baizik. Nolanahi ere, konpara bitez Leizarragak emandako diptongoak Olivetanek (1537) deskribatutako "diphthongues francoyses" izenekoekin, hots, "ae, ai, ay, ao, au, ei, eu, oe, oi, oy, ou, uy".

Atal aritmetikoa

Jauzi bat eginez bada ere, *Abcaren* amaierara jo behar da "Contu communezco eta chiffrezco letrén eçagutzeco Taula" delakoa aurkitzeko, bukaerarako geratu baitzen zenbakien inguruko alfabetizazio-atala.

Orrialde bakar batean bilduta (*Abc*, [L8]; Leizarraga, 1441), 1-10 bitarteko zenbakien eta besteren baten izenak ("Valioa", hots, "Bat", "Biga", "Hirur", "Laur", "Borz"... "Ehun", "Borz ehun" eta "Mill") eta, pare-parean, haiel dagozkien errepresentazio grafikoak (arabierazko numerazioa eta erromarra, "Chiffrea" eta "Contu communa" hurrenez hurren) eskaintzen ditu beskoiztarrak.

Berriz ere gainontzeko *Abcen* ildoan³⁰, orrialdearen beheko aldean 1-100 bitarteko zenbakien taula erantsi zen, hamar zenbakiz osatutako hamar lerrotan banatua.

Agerian dago funtsezko "aritmetika" baizik ez dela eskaini nahi liburutto honetan; haurrek eta enparauiek zenbakien ezagutza eta identifikaziorako ezinbesteko zutena baino ez, hortaz.

Alderdi doktrinala

Luzea eta anitza da alderdi doktrinaltzat definitu duguna barnehartzen duen atala. Eta multzo desberdinetan bana daiteke hobeto ulertzeko. Hasierako multzoak, adibidez, honako hiru osagaiok ditu: "Iesus Christ gure launaren orationea" edo frantsesezko bertsioetako "Oraison dominicale" delakoa (*Aitagurea*, hain zuzen), "Christinoen fedeco articuluac" edo Apostoluen Sinboloa (*Sinesten dut* delakoa, alegia) eta, hirugarrenik, Hamar Aginduak. Jainkoaren Legearen osagarri gisara, "Legue guciaren sommariora" eransten da, Mateo eta Joan-en ebanjelioetatik jasotako bina aipuz osatua.

Lehendabiziko hiru osagaiak, Kalbinek 1559ko *L'Ordre du College* delakoan aholkatuko zuen ordena berean agertu ohi ziren *Abc* gehienetan. Peter-ek oharrarazi bezala (1965, 19-20), "il [Kalbinek] prévoit que tous les soirs, avant la sortie du College, trois enfants à tour de rôle récitent en français les textes de base de notre foi, dans

[30] 1551ko *L'ABC françois* delakoak, adibidez, "Pour cognoistre les nombres des chiffres lusques a cent" izenburupean eskaintzen du arabiar zenbakien taula (ez dakar zenbakien izena, edo Leizarragak ziokeen bezala, zenbakiei dagokien "valioa").

l'ordre: Oraison dominicale, Confesion de foi, Dix commandements, un ordre qui correspond précisément à celui des abécédaires".

Aitagurea edo "*Jesus Christ gure launaren orationea*" Leizarragak beste hainbat tokitan ematen duen bertsio finkoa da. Haurren instrukziorako *Abc* honetan bada, halere, azpimarra daitekeen punturik. Liburuaren aitzinsolas gisakoan, mintzatzeko eraren egokitzapen-beharraz esan zuenaz eta jadanik errepikatua dugunaz ari gara, alegia, "Heuscal-Herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago" izango zuela "ecen ez bercetacoetara" (A2 v; Leizarraga, 1394).

Izatez, "Çuberoan eta aldirietan" (ikus Leizarraga, 1214) erabili omen zen bezala ballatzeari ekin bazion ere datibo pluralaren kasuan³¹, arazoa lexikoarekin lotua agertu zen hasiera-hasieratik, ez baitziren "Çuberoaco herrian usangatan ez tiraden hitz" haietakoak baizik erabiltzen. Horrela, "Resumá" hitza ez zen aldatu, nahiz eta bertsio gileak ongi zekien (hala zioen hitz-zerrendan behintzat) zuberotarrek "retatuia" zutela ezaguna. Berdin "ceruëtan" hitzaren kasuan; hitz-zerrendaren arabera, "celuyan" behar zuen "religionearen exercitioa den lekuco" jendeen artean.

Aurrerago ere ikusiko den bezala, badirudi hautu "arrotz" horren arrazoia otoitz nagusien normalizazio-premian bilatu beharko litzatekeela batik bat. Izan ere, funtsezko otoitzak (lexikoa muina izanik) zeharo kodetuta utzi nahi bide zituzten euskal kalbindarrek behingoz, eta euskaldun erreformista guztientzat bertsio bakarrik –doktrina-dibergentziatarako arriskurik gabekoak– zabaldu³².

[31] Hala, "offensatu gaituzteney" delakoa "offensatu gaituztenér" bilakaturik agertu zen *Abcra* (A4 v; Leizarraga, 1398).

[32] Erka bitez, esaterako, *Otoitza Eklesiastikoaren Forma* liburuxkan ematen diren bi bertsioak eta haietatik zertxobait aldentzen den *Abckoa. Otoitza Eklesiastikoa(...)* ren *Formaren* baitako *aitagurearen* lehen bertsio osatugabeko "Eta barka ietzaguc gure faltác guc-ere falta eguin draucuteney barkatzen drauegun beçala" perpausa (Leizarraga, 1274) orri zenbait aurreragoko bigarren bertsioan honela eskaintzen da: "Eta barka ietzaguc gure bekatuac, nola guc-ere offensatu gaituzteney barkatzen baitrauegu" (Leizarraga, 1281). Harrigarriro, *Abckoa* bertsio biek –hizpide dugun otoltz-multzokoak eta liburuak erantsita daraman *Ktkoak*– bietatik jasotzen dute zerbait: lehendabizi aipatutako osatugabearen eredia jasotzen dute amaiera aldean ("delivra gaitzac gaitzetic"), lehengoaren "delivra gaitzac gaichtotic" formatik urrunduz; eta, aldi berean, bigarren bertsioari segitzen diote golko lerrootara ekarritako perpausan: "Eta barka ietzaguc gure bekatuac, nola guc-ere offensatu gaituztenér barkatzen baitrauegu" (*Abc*, A3; Leizarraga, 1398).

Bitxia da, bestalde, Apostoluen Sinboloan edo, beste izenez, "*Christinoen fedeco articuluac*" delakoan finkatzen den bertsioa, puntu batean bederen beste lan batzuetan emandako bertsioetatik aldentzen-edo dena.

Bai *TBko Katexismean* (Leizarraga, 1294-95) eta *Otoitza Eklesiastikoen Forma* liburuttoan³³ (Leizarraga, 1281) otoitz bera eskaintzen da, baina amaiera aldean honela baieztatuz: "sinhesten dut Eliça saindu catholicoa".

Abckoa otoitzen planteamendu didaktikoak, bere laburrean, ez du kontzeptu teologikoen argitzapenetan sartzen uzten³⁴, eta honela ikasgarritasun zaila haurrei otoitza: "sinhesten dut Eliça saindu universal" (*Abc*, [A5]; Leizarraga, 1399)³⁵.

Bistan da *Katexismean* (*Kt* bietan, alegia) argitutako kontzeptua izendatzeko aldagai "ez problematikoa" bakarrik ballatu nahi izan zuela Leizarragak *Abckoa* otoitz honetan, katixima larrien tradizio kalbindarri jarraikiz³⁶, sinonimo gisara emanak baitzituen "katolikoa" eta "unibertsala" izenlagunak Ministrearen "Cer erran nahi da, Catholicoa, edo universal?" galderan (*Abc*, D2 v; berdin, halaber, *TBri* erantsitako *Ktn*: Leizarraga, 1308).

Ez du, dena den, gutxienez 1551ko *L'ABC François* liburu genevarretik datorren hariari heldu besterik egiten.

Ildo berean, multzo honetako "*laincoaren Legueco hamar Manamenduac*" izenekoari dagokionez ere, bada zer azpimarratu. Izan ere, *Exodo* liburuko 20. kapitulutik hartutako aipamen bat "Prefatioa edo hatsea" gisara eman ondoren, bi "taula"-tan banatuak ematen dira hamar Aginduak: lehendabiziko lau Aginduak lehenean, eta hurrengo seiak bigarrean.

[33] Konstatatu baino ez dugu egingo beste bertsioetako "lugeatzera" aditza "iudicatzera" bezala agertzen dela *Otoitza Eklesiastikoen Forma*an.

[34] Aski era argian irakasten du *Katexismeak* nola ulertu behar duten protestanteek "Eliça catholicoa" kontzeptua: "M[inistrea]. Cer da Eliça catholicoa"? H[ourra]. Hura da, laincoac vicitze eternalco ordenatu eta elegitu dituen fidelén compainiá" (*Abc*, D2; *TBko Kt*: Leizarraga, 1307).

[35] *Abckoa Katexisme*a delakoan, aldiz, "catholicoa" hitza mantentzen da, besteak beste, *TBko Kt*aren kopia –egokitua eta zuzendua, nahi bada, baina kopia azken batean– delako.

[36] Ikus, adibidez, Bonnefoy 1563 edizioan, [376] or.

Ohikoa zen protestanteen artean Aginduak emateko modu bi-koitz hori³⁷ eta, ohikoago eta nonbait erlijio erreformatuaren definigarriago bigarren Aginduaren garapen luzea, hots, katolikoek hain gogoko zuten ikonografiaren debekatzaille agertzen zena.

Oro har, *Ktn* igandez igande ikasteko bereizirik agertzen direnak bezalakoak dira erredakzioari dagokionez. Bada, halere, alderik haien artean, lehendabiziko desberdintasuna aipatu bigarren Aginduan ematen delarik³⁸:

"Eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen, ez irudic batre ceruã garayan diren gaucenic, ez beherean lurrean direnenic, ez uretan lurraren azpian direnenic. Ez dituc hec adoraturen ez cerbitzaturen. Ecen ni nauc hire lainco launa, borthitziç ielossia, aitén iniquitatea haourrén gainean visitatzen dudana hirugarren eta laugarren generationerano, niri gaitz dariztenetan: eta misericordia eguiten drauédana milla generationetarano, niri on daritzener eta ene manamenduac beguiratzen dituztener" (*Abc*, [A5 v]; Leizarraga, 1400).

"Eztraucac eurorri eguinen imagina ebaquiric, ez eceinere figuraric, ceruan garayan diren gaucenic, edo beherean lurrean, edo uretan lupean direnenic. Eztituc hec adoraturen ez ohoraturen" (*Kt*, 23. Igandea: *Abc*, [D8]; *TB*, D3 eta Leizarraga, 1315)

Ecen ni nauc hire lainco launa, lainco borthitza, ielossia, aiten iniquitatea haourrén gainean visitatzen dudana, hirugarren eta laugarren generationerano niri gaitz dariztenetan" (*Kt*, 24. Igandea: *Abc*, E1; *TB*, D3 v eta Leizarraga, 1316).

"Ni nauc misericordia eguiten drauedana milla generationetarano niri on daritzener, eta ene manamenduac beguiratzen dituztener" (*Kt*, 24. Igandea: *Abc*, E1 v; *TB*, D3 v eta Leizarraga, 1316).

[37] *Ktko* galdera-erantzunetan zehazten da horren arrazola: "M[inistrea]. Eta divisione hori norc eguin du? / H[ourra]. laincoac berac, ecen harc Moyses eman ukan ceraucan bi taulatan scribatua, eta erran, ecen hura hamar hitzetan contenitzen licela./ M. Cein da lehen taularen argumentua?/ H. laincoa nola ohoratu behar dugun. / M. Eta bigarren taularena?/ H. Gure hurcoequin nola vici behar dugun, eta cer hayér çor drauegun" (*Kt*, 21. Igandea: *Abc*, [D7]; *TB*, D2 eta Leizarraga, 1313).

[38] Ondoren ikusiko den bezala, *Katexismetik* jasotako Aginduak pasarte soltetan banaturik ager daitezke.

Hirugarren Aginduan ere bada alderik:

"Eztuc eure lainco launaren icena vanoqui harturen: ecen launac eztic innocent eduquiren haren icena vanoqui harturen duena" (*Abc*, [A5 v]; Leizarraga, 1400).

"Eztuc eure lainco launaren icena vanoqui harturen" (*Kt*, 25. Igandea: *Abc*, E2; *TB*, D4 eta Leizarraga, 1317).

"[...] ecen launac eztuela innocentetan eta hoguen-gabetan eduquiren haren icena vanoqui harturen duena" (*Kt*, 25. Igandea: *Abc*, E2 v; *TB*, D4 v eta Leizarraga, 1318).

Eta laugarrenean:

"Aicen orhoit Sabbath egunaz, hura sanctifica deçançat. Sey egunez travaillaturen aiz, eta eguinen duc eure obra gucia: baina çazpigarren eguna, hire lainco launaren Sabbath eguna duc. Eztuc eguinen hartan obraric batre, ez hic, ez hire semec, ez hire alabac, ez hire muthillec, ez hire nescatoc, ez hire abrec, ez hire borthez barnetic den estrangerec. Ecen sey egunez eguin citic launac ceruã eta lurra eta itsassoa eta hetan den gucia: eta çazpigarren egunean repausatu içan dut. Harren, benedicatu dic launac Sabbath eguna: eta hura sanctificatu" (*Abc*, [A5 v] - [A6]; Leizarraga, 1400-01).

"Aicén orhoit Sabbath egunaz, hura sanctifica deçançat. Sey egunez travaillaturen aiz, eta eguinen duc eure obra gucia. Baina çazpigarrera, hire lainco launaren Sabbathoa duc. Eztuc eguinen hartan obraric batre, ez hic, ez hire semec, ez hire alabac, ez hire muthillec, ez hire nescatoc, ez hire idic, ez hire astoc, ez hire borthez barnetic habitatzen den estrangerec. Ecen sey egunez eguin citic laincoac cerua eta lurra eta cerere hetan contenitzen baita: çazpigarrerean reposatu içan duc. Harren benedicatu ukan dic Sabbath eguna eta sanctificatu" (*Kt*, 26. Igandea: *Abc*, E2 v - E3; *TB*, D4 v - [D5] eta Leizarraga, 1318-19).

Eta bosgarren Aginduan:

"Ohoraitzac eure aita eta eure ama, hire egunac luçat ditecençat, eure lainco launac emaiten drauã lurraren gainean" (*Abc*, [A6]; Leizarraga, 1401).

"Ohoraitzac eure aita eta ama" (*Kt*, 28 Igandea: *Abc*, E4 v - [E5]; *TB*, [D6] eta Leizarraga, 1321).

"Hire egunac luça ditecençát, eure lainco launac emaiten drauán lurraren gainean" (*Kt*, 28 Igandea: *Abc*, [E5]; *TB*, [D6] eta Leizarraga, 1321).

Inpresioak inpresio, balirudike *Ktko* hitzez hitzeko itzulpenak itzulpen "kultua" eta gora izan nahi duen bitartean, *Abckoak* "herritarago" edo, nahiago bada, euskal senari lotuago agertu nahi duela. Adibidea dugu, esaterako, laugarren Aginduko "eta cer-ere hetan contenitzen baita" / "eta hetan den gucia" formuletan.

Horretan, halere, ez bide du garrantzi gehiegirik perpausen barneko antolamenduak. Bederatzigarren Agindurako *Ktk* aukeratu duen formulazioa, adibidez, askea da; *Abckoak*, berriz, Taulako beste Agindu guztien egiturari ([Ez] + aditz laguntzailea + aditz nagusia) segitu behar zion:

"Eztuc testimonlage falsuric erranen eure hurcoaren contra" (*Abc*, [A6]; Leizarraga, 1401).

"Eure hurcoaren contra testimonlage falsuric eztuc erranen" (*Kt*, 30. Igandea: *Abc*, [E7]; *TB*, [D7 v] eta Leizarraga, 1324).

Ondoren datorren "*Legue guciaren sommarioa*" izenekoak Hamar Aginduen laburbiltzaile gisa ezagutzen den Mateoren Ebanjelioko aipu klasikoa baliatzen du eta beste zenbait aipamen gehiago eranstzen.

Baina, berriz ere, Mat. 22, 37-40 pasarteek dibergentziaren bat erakusten dute *TBn* emandako bertsoarekin alderatuz gero. Leizarragak, antza denez, ez zituen aipu guztiak hitzez hitz jaso bere *Testamentu Berritik*. Edo, beste posibilitate bat nahi bada, beskoiztarra ez zen gehiegi kezkatu kaleratu behar zituen bertsoak homogeneizatzeko eta guztiak berdin emateko. Liburu hartako Mat. 22, 37an "pensamendu" zena (Leizarraga, 366), esate baterako, "adimendu" bihurturik agertzen da *Abcan* ([A6 v]; Leizarraga, 1402).

Interesgarriagoa, edonola ere, kapitulu bereko 40. bertsetean gertatzen den testu-neutralizazioa, hots, *TBko* "Bi manamendu hautaric Legue gucia eta Prophetac dependitzen dituc" perpausa dialogikoa "Bi manamendu hautaric dependitzen dira Legue gucia eta Prophetac" izatera igaro da *Abcratzean*, hitano-formaren galerarena bainoago, galdegaiaren inguruko eztabaida altubetarra irekita utziz.

Nabarmendu beharrekoa da honako honetan ere uko egin ziola

Leizarragak "Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu [...] hango ançora itzuliac" emateari, lexikoa egokitzeari, alegia³⁹, nahiz eta, ikusi den legez, idatzia utzi zuen besterik egiteko borondatea. Baina hori, dirudienez, doktrina-zuzentasunarekin lotua doan hautu finkoa da Leizarragaren obran⁴⁰.

"Aita familia fidel baten bere etheco guciequilaco exercitioa eta laincoari othoitz eguiteco formá" izenburupeko otoitz-sorta da *Abcko* beste doktrina-atal garrantzitsu bat ([A7] – [B6 v]; Leizarraga, 1403-18).

Carbonnier-Burkard-ek dioen bezala, "l'exercice du père de famille' (montagne de prières de Calvin, privées et publiques, à usage du culte familial), d'après le Livre des prières et oraisons" (2009, 142)⁴¹ du père de famille, au matin et au soir, utilisant la forme abrégée des prières de Calvin prévue pour les tours de semaine, apparaît dans le psautier de Genève dès 1560" (2009, 142, 79. oharra).. Leizarragak, beraz, itzuli eta egokitu besterik ez bide zuen egin ohiko corpus hura.

Guztiarekin ere, ez dira gutxi atal horretan agertzen den otoitz-sortak aurkezten dituen arazoak. Izatez, jatorri desberdineko otoitzak dira hemen pilatzen direnak.

Jakina, otoitzak ziren neurrian, pentsatzekoa da nahiko era askean joka zezaketela autoreek haien mailegatzeko, garraiatzeko eta, hein batean bederen, antolatzeko orduan. Baina haietako gehienak maiz errepikatuak izan badira ere kalbindar edizioetan⁴², ez da

[39] Leizarragaren beraren hitz-zerrendaren arabera (Leizarraga, 1214), "hurcoa" hitzaren ordez zuberotarrek "proximoa" zioten.

[40] Beskoiztarrak ez du eragozpenik hizkuntz egokitzapenik egiteko. Hala, Joan 13, 35ean, garbi asko saihesten eta egokitzen da *TBko* hizkuntz kalkoa ("batac berceagana" Leizarraga, 661), haren ordez "elkargana" idatziz (*Abc*, [A6 v]; Leizarraga, 1402). Baina horrek, agerian da, ez du doktrina-gairik ukitzen.

[41] Orri bereko ohar batean eranstzen den bezala, "L'74

[42] Otoitz multzo hauek berdin ager zitezkeen *Bibliari* erantsiak (ikus F. Estienne, 1567), Marot eta Beze-ren *Psaumes de Davidekin* batera (ikus I. Crespin, 1554 eta I. Bonnefoy, 1563, [344-358]), katiximetan tartekatua (ikus Kalbinen *Catéchisme: c'est à dire, le formulaire d'instruire les enfants en la chrestienté, fait en la manière de dialogue, où le ministre interroque et l'enfant respond* PAR IEAN CALVIN, Jean Crespin, Geneva, 1552, 116-122; orain: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53115_1) edota, hizpide dugun honetan bezala, *Abc* izenekoetan jarriak. Edonola ere, Kalbinek 1545ean argitaratu zuen *Le Catechisme de l'Eglise de Geneve* delakoan katiximaren ondoren datoz jarrita (ikus haren *Obra Guztiak*, VI. liburukia, 135-146).

falta Leizarragarenganainoko urratsak⁴³ lausutzen dituzten bakan batzuk.

Esparru horretakoa dugu, esaterako, sarrerako otoitza, *Otoitza eklesiastikoen forma* liburua irekitzeko erabiltzen den bera, baina bestelakoetan azaldu ez zaiguna.

Formalki, liburu horren hasierako egitura berdina islatzen du, halaber, jarraian datorren "Exhortationea" izeneko atalak, hitzak zertxobait aldatzen diren arren. Edonola ere, ez da falta estilo bereko exhortaziorik otoitz-bildumatan, beste toki batean jarrita bada ere⁴⁴.

Horren ondoren datozen otoitzak, ordena gorabehera, frantses edizioetan agertuak eta errepikatuak dira gehienak. Leizarragak, dena den, egokiro –bestek baino egokiago⁴⁵, esan nahi baita– antolatuta eskaintzen ditu guztiak. Bi multzotan banatuak (goizeko eta arratseko otoitzak lirakeenak, batetik, eta "goiceco eta arratseco orationén ondoco othoitza generalac", bestetik), lehenengoaren atari gisa "Goiceco eta arratseco orationén aitzinean eguitéco Confessione" izeneko ezarri zuen, oraingoz behintzat beste inon aurkitu ez duguna⁴⁶.

"Goiceco orationea" (Leizarraga, 1404-07), antolamendu-gorabehera zenbaitekin⁴⁷, han-hemen argitaratutako otoitz-bilduma askotan aurki daiteke⁴⁸. Berdin esan liteke "Lan eguitéco hatsean" ize-

[43] Otoitzetan agertzen diren ezaugarri zenbait direla eta (atalaren antolamendua, lexikoaren egokitzapena, otoitz batzuen amaierako "Ençun gaitzac, othol[...] leloa, etab.), badirudi Leizarragak mailegurako erabili eredu nagusiak 1562tik aurrerako edizioetan bilatu beharko lirakekeela.

[44] Bonnefoy-k argitaratutako *Les Psaumes mis en rime* liburuan, esaterako, "Priere pour dire au soir" izenekoari ematen dio sarrera honako "Exhortation" honek: "Mes freres, que chacun de nous se prosterne bien humblement devant la haute & souveraine maesté de nostre bon Dieu & Pere, nous reconnoissans tels que nous sommes: asçavoir, poures pecheurs & miserables, le prians de bon coeur, comme il s'en suit" (1563, [352]).

[45] Antolamendu-koherentziarena ez da obra guztien ezaugarria. *L'ABC françois*-en, esaterako, afaldu aurreko eta ondokoekin (eta horiek ere nahasirik: a, o, a, o, a, o) ekiten zaio otoitz multzoari, jarraian "Oraison pour dire au matin, en se lavant" eranstean delarik.

[46] Hasierako pasarteak antz handia du *Othoitza Ecclesiasticoen Forma*-ko hasierako "Confessione"-renarekin. Bukaera berdina dute "confessione" blek.

[47] Kalbinek (1545; Crespín, 1552) eta Marot-Beze-k (Crespín, 1554) bezala, Leizarragak amaieran erantsi zuen 143. salmoa obra batzuetan otoitzaren aurretik azal daiteke (Bonnefoy, 1563) eta beste batzuetan agertu ere ez da egiten (*L'ABC françois*, 1551).

nekoaz (Leizarraga, 1407-08)⁴⁹, "Lectioearen studiatzeracoan erralteco orationea" delakoaz (Leizarraga, 1408-10)⁵⁰, "lan aitzineco ohoitzá [sic]" delakoaz (Leizarraga, 1410-11)⁵¹ eta "lan ondoco othoitzá"-z (Leizarraga, 1411-12)⁵². "Arratseco orationea"-ren kasuan (Leizarraga, 1413-14) bitxia da egoera: Kalbinek zehaztu ildoko otoitza da eskaintzen dena, baina izenburua Marot-Beze-ren edizioekin du lotura gehiago, hauek "Priere pour dire au soir" dioten bitartean, hark "Oraison pour dire devant que dormir" idatzi baitzuen, bildumari akabera emanez.

Guztiarekin ere, Marot-Beze-ren *Pseumes*en eranskin honetan bi gauza azpimarragarri agertzen dira: batetik, guri dagokigun otoitza beste luzeago baten zatia baino ez da ("autonomia"-rik gabeko otoitza, hortaz), eta, bigarrenik, otoizgilea, Kalbinen bertsioan ez bezala, pluraleko lehen pertsonan mintzo da, Leizarragarenean bezalaxe, alegia.

Multzoaren amaierako "Goiceco eta arratseco orationén ondoco othoitza generalac" atalak, azkenik, Leizarragak berak burututako moldaketa baten fruitu dirudi. Horrela, lehen begiratuan, "Priere generale pour la necessité de l'Eglise, qui se peut adiufter apres la priere du matin & du soir" (Bonnefoy, 1563, [354-6]) otoitza antze-

[48] Ohar txiki bat: frantseseko bertsioetan singularreko lehen pertsona eta posesiboak (*je, mon, ma*, etab.) eta haien dagozkien aditzak, Leizarragarenean pluraleko lehen pertsona bilakaturik azaltzen dira (*gu, guk, gure, equiguc...*). Bonnefoy-k, halere, badu beste hainbat otoitzetan beskoiztarrek bezalatsu aritzeko joerarik.

[49] "Autre oraison, pour dire devant que de faire son oeuvre" izenarekin dator 1551ko *L'ABC françois*-en, 119. salmoaren ("oraison pour dire au matin") ondoren eta azken otoitz gisara. Bonnefoy-renak "Oraison pour dire devant que commencer son oeuvre" izendatzen du eta jaiki ondoko otoitzaren atzetik jartzen du.

[50] Kalbinek "Oraison pour dire devant qu'estudier sa leçon à l'eschole" (1545; Crespín, 1552, 118-119) izenburuarekin ematen duena, Marot-Beze-k honela eskaintzen dute: "Oraison pour dire avant qu'estudier sa leçon" (Bonnefoy, 1563, [350-351]), 1562tik aurrera "eschole" hitza ezabatu baitzen edizio gehienetatik (ez, ordea, Estienneren 1567kotik). Baina aldaketa horiek eta bestelakoak ("oraison"-en orde, "priere", etab.) hain gertatzen dira maiz esku artean ditugun obretan, ezen artikulu hau alferrik luzatzea baino ez bailuke ekarriko guztien berri emateak. Barka bekigu, hortaz, pertinentzia berezia dutenak baino ez badira hemen aipatzen.

[51] Kalbinen eta Marot-Bezerenetan ez bezala, Leizarragak ez du otoitzaren amaieran Deuteronomio 8ko aipua eskaintzen. *L'ABC françois*-en otoitza bakarrik azaltzen da ([Crespín], 1551, 13), hasierako 104. salmoa ere gabe.

[52] -Aurreko otoitzaren ildotik, *L'ABC françois*-ek ez du honetan beste otoitz-bildumatan ohikoa den 117. salmoaren aipamenik egiten.

maten da Leizarragarenaren "azpian"⁵³. Hori bai, oso moldaketa eta estilo moderatua eta zuhurra da oro har, eta ez dira bertan frantsesezko bertsioetako "l'Antechrist Romain", "l'Antichrist de Rome" eta bestelako gehiegikeriak⁵⁴ alpatzen⁵⁵.

Agerian da beskoiztarrak, liburura ekar zitzakeen otoitz guztietatik larrienak, hau da, erlijioaren ortodoxiaz arduratzen zirenek –Kalbin, Marot, Beze– hautatuak behintzat jaso zituela bere Abcrako. Eta agian horrexegatik geratu zaizkigu ezkutaturik haien osagarri gisa beste nonbaitetik jaso zituen otoitz txiki zenbaiten iturriak: "Goiceco berce orationea" (Leizarraga, 1407), "lan aitzineco berce othoitzá" (Leizarraga, 1412), "lan ondoco" (Leizarraga, 1412-13), "lan aitzinean" (Leizarraga, 1413), "lan ondoan" (*idem*) eta "Arratseco berce orationea" (Leizarraga, 1415).

Jatorri, eredu edota erreferentzi arazo berdintsua gertatzen da Leizarragaren Abcan dagoen "Jesus Christ gure launaren Cena saindua recebitu behar direnén interrogatzeco manerá"-rekin ere (Leizarraga, 1419-24).

Izatez, 1551ko *L'ABC françois* ([Jean Crespin], [Geneva]) delakoan aurkitzen dugu, frantsesez, honako lan xume honen aurretikoa edo izan zitekeena⁵⁶, hots, "La maniere d'interroguer les enfans qu'on veut recevoir à la Cene de nostre Seigneur Jesus Christ" izenekoa⁵⁷, hain zuzen ere aztertu otoitz-bildumaren ondo-ondoan

[53] Otoitzaren hasiera eta, batik bat, bukaerako txataltxoak (Leizarraga, 1417-18) Bonnefoy-ren edizioak bezalakoak dira, literalki berdinak.

[54] "Loups ravissans" bezala irudikatua ohi ziren erromatar fedeko elizgizonak-eta otoitzetan (*Alphabet ou instruction chrestienne*, P. Estiard, 1558).

[55] Azterteke dago 1563an bukatu zen Trentoko Kontzilioaren doktrina berriak eta erabakiek eragin izan ote zuten Leizarragaren obraren planteamenduan eta alpatu berri diren hautuetan.

[56] Berdin-berdin agertzen da Kalbinen izenarekin 1552an argitaratutako katiximan ere (*Catéchisme: c'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la chrestienté, fait en la manière de dialogue, où le ministre interroque et l'enfant respond PAR IEAN CALVIN*, 1552, Jean Crespin, Geneva (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k531151>). Adibideotan erakusten denez, ez da zuzena Kalbinen Obra Guztien bilduman baleztatzen dena, hots, "cette pièce se trouve pour la première fois dans le Catéchisme de 1553" (Cunitz, Baum, Reuss (ed.), 1863-1900, VI, [147-148], 1. oharra).

[57] Ohar bekio, frantsesezko bertsioetan ez bezala, Leizarragak ez duela "haurrei interrogatzeko manera" esaten. Galdeketa, halere, *Ministrea* eta *Haurraren* artean burutzen da, hona ekarri ez dugun –baina aurre-aurrean zegoela argitaratu zen– *Katexisman* bezalaxe.

zeturrena. Baina pasarte gehienetan era desberdinez egituratua dago eta edukietan ere alde handiak azaltzen dira.

Oro har, dibergentziarik handienak bigarren galderari ematen zaion erantzunean hasten dira (*Abc*, [B7]; Leizarraga, 1421):

Le ministre. Le pere, le Filz, & le saint Esprit, sont ils plus d'un Dieu?

L'enfant. Non

M[inistrea]. Aita, eta Semea, eta Spiritu saindua hirur lainco dira?

H[aurra]. Ez: baina essentia divinal ber batetan, hirur persona hauc dira distinguituac eta cein bere.

Formalki, handik aurrerakoak pasarte batzuetan baino ez du Kalbinen obra horrekiko antzik, bietan landutako kontzeptuak berdinak badira ere.

Alabaina, katiximako galdera-erantzun horiek Kalbinek 1545ean argitaratu zuen *Catechismus Genevensis* delakoaren ildoan jarriko gintuzketela ematen du⁵⁸, desberdintasun zenbaitek bertan baitute, antza, iturburua⁵⁹. Genevako katixima hori, dena den, Leizarragarena baino askoz luzeagoa da eta, ezer izatekotan, kontzeptuak argitzeko edo izango zitzaion baliagarri Leizarragari, edo, bigarren aukera posiblea, haren eredu izan zen obraren egileari.

Gorago adierazi bezala, 1562ko edizioa ere ez zen Leizarragaren erreferentzia izan. Nolanahi ere den, eta erkatze-lan sistematikoaren faltan, balirudike, inon bilatzekotan, ordutik aurrera (1563-1564ra bitartean? 1568ra arte?) argitaratutakoen artean bilatu beharko liratekeela euskarazko *Abc* honen erreferentzia nagusiak⁶⁰.

[58] Frantsesezko bertsioa: *Le Catechisme de l'Eglise de Geneve: c'est à dire le Formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté: fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroque et l'enfant respond* (Cunitz, Baum, Reuss (ed.), 1863-1900, VI, [1]-134).

[59] Literalak dirudite, adibidez, alpatu berri diren galdera-erantzunei legozkiekeen atal zatitok Kalbinen honetan: "LE MINISTRE. Veu qu'il n'y a qu'un Dieu, qui te meut de reciter le Pere, le Filz, et le saint Esprit, qui sont trois? L'ENFANT. Pource qu'en une seule essence divine nous avons à considerer [...]"(Cunitz, Baum, Reuss (ed.), 1863-1900, VI, 15; gureak dira letra etzanak).

[60] Estiennek 1567an argitaratutakoak ere, bere laburrean (orrialde bakarreko luzera baitu), ez du Leizarragarenarekin besteek baino antz handigorik.

Beste guztiek ez bezala, atal honek eta ondoren datorrenak "FINA" hitza dute amaieran. Horrek, nonbait, idazlan handiagoek ohi duten autonomi kutsu sinbolikoa emango lieke bie.

Horrekin loturik, bestalde, bistan da (eta honek gehiago indartuko luke beskoiztarraren obratxoaren eklektizismoaren hipotesia) Abcaren bukaeran dagoen "Christino batec iaquiteco dituen punctu principalen definitioneac eta descriptioneac" izeneko txatalak (Leizarraga, 1425-38) beste inon, eta bestela ere, argitara zitekeen koadernotxo baten egitura duela.

Peter-ek eskainitako erkaketa urri samarrari (dozena erdira mugatzen baitira hark aztertutako liburuak) kasurik eginez gero, honen pareko diren atalen izenburuak "offre des variantes suivant les éditions: dans l'ABC de 1562 on lit 'Traité nécessaire à ceux qui veulent recevoir le sainte Cene de nostre Seigneur et seul Sauveteur lesus Christ', tandis que les ABC de 1568 et 1630⁶¹ parlent de 'Recueil des principaux poincts que doyvent scavoit ceux qui veulent communiquer à la sainte Cene de nostre Seigneur lesus Christ'. Bien que les titres diffèrent, le texte qu'ils recouvrent est le même partout: une collationnement rigoureux ne révèle que des écarts insignifiants. Le texte lui-même est un excellent résumé de catéchisme de Calvin" (Peter 1965, 29, 49. oharra).

Leizarragaren izenburuak, agerian da, azken bigarren honen antz gehiago du ("punctu principal"-ez mintzo baita beskoiztarra ere)⁶², baina ez du, formalki bederen⁶³, bestelako lokarririk.

[61] Ustez J. Crespinek kaleratutako *L'ABC ou l'instruction des chrestiens* liburuaz (Geneva, 1568) eta P. Marceau-k izenburu berdinarekin argitaratutako liburuaz (Geneva, 1630) ari da Peter ikertzailea.

[62] Teologikoki formula biak sinonimotzat har balitezke ere, nabarmendu beharrekoa da Leizarragaren liburuttoaren planteamendua zertxobait irekiago edo azaltzen dela, "christino batec iaquiteco dituen punctu" horiek ez baitira "Cena" delako jardunera murrizten.

[63] Formalki diogunean, ez dugu ukatu nahi nolabaiteko lotura tematiko puntualik, izan ere, beste Abc horien laburpena baitirudi Leizarragarenak hainbat puntutan. Hona, etsenplu gisa, lehen txatalean aurkitutako paralelismo pare bat. 1551ko ABCak azaldu nahi duen mezu-muina ("La dicte confession contient quatre parties. La premiere est de Dieu le Pere qui est le commencement et cause principale de toutes choses. La seconde de son Filz lesus Christ qui est la sapience eternelle de Dieu [...] La troisieme du saint Esprit qui es la vertu et puissance de Dieu, laquelle il expand sur ses creatures et neantmoins reside tousiours en luy" [gurea da letra etzana]),

Aieru ausarta bada ere, esango genuke Kalbinen teologia erreformatuaren bilduma den *Institutio christianae religionis* liburuan garatzen diren puntu larrien ildokotzat har daitekeela honako hau edukiarri dagokionez, handik jaso, xurgatua edota laburtua. Eta ez ziurrenik Leizarragak "sortua", hala edo hola moldatu-itzulia baizik. Izan ere, estilo bereko hainbat lan prestatu ziren Kalbinen liburu garrantzitsu haren ideia nagusiak zabaltzeko asmoarekin.

Aitortu behar da, edonola ere, orain arte ez dela antzeko laburpenen berririk izan Frantziako Eliza Erreformatuak argitaratutako obretan.

Bibliografia

- Askoren Artean, 1979, *Fragments litteraires et critiques relatifs à l'histoire de la Bible française*, Geneva.
- Calvin, J.: Ikus Cunitz, Baum, Reuss [ed.] 1863-1900.
- Carbonnier-Burkard, M., 2009, "Calvin dans des recueils de prières « nicodémistes »?", *Bulletin -Société de l'histoire du protestantisme français* 155, 129-151.
- Cunitz, E., Baum, J.-W., Reuss, E. W. E. (ed.), 1863-1900, *Joannis Calvini opera quae supersunt omnia*, Brunsvigae, C.A. Schwetschke, 59 tomo.
- Hauser, H., 1909, "Petits livres du XVI^e siècle", in H. Hauser: *Etudes sur la Réforme française*, Paris, 255-298.
- Jostock, I., 2007, *La censure négociée. Le contrôle du livre à Genève 1560-1625*, Geneva.
- Leizarraga, J., 1571, *ABC, edo christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin*, P. Hau[]tin, Arroxela (Ikus Linschmann eta Schuchardt [ed.], 1900:1990). (Orain: http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/L_eizarragaAbc.htm).
- Leizarraga, J., 1571, *Testamentu Berria*, 1571, P. Hau[]tin, Arroxela (Liburua online: http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/leizarraga/leizarraga_biblia.pdf). (Ikus, halaber, Linschmann eta Schuchardt [ed.], 1900:1990).
- Linschmann, Th. eta Schuchardt, H. (ed.), 1900: 1990, *I. Leizarragas Bas-*

(...) Leizarragak askoz ere laburrago (baina funtsezko kontzeptuak hitzez hitz) ematen du: "[...] Aita, cein baita gauça gucién fundamenta eta causá: Semea, cein baita Aitarén sapientia eternala: eta Spiritu Saindua, cein baita Aitaren eta Semearen verthutea, ceinen verthutez gauça guciéc iraute eta avangü baitute, ceinec bere içatean" (Abc, II; Leizarraga, 1425).

kische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck, Strassburg, 1900 (Orain: Leizarraga, J., *IESUS CHRIST GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA. Othoitza ecclesiasticoen forma, Catechisimea, KALENDREERA, ABC edo Christinoen Instructionea*, Bilbo, 1990).

Martinez de Bujanda, J., 1988, *Index d'Anvers, 1569, 1570, 1571*, (10 liburuko *Index des livres interdits* [1984-1996, Sherbrooke-Canada eta Geneva] obraren 7. lib.).

Peter, R., 1965, "L'abécédaire genevois ou catéchisme élémentaire de Calvin", *Revue d'Histoire et de Philosophie religieuses* 45-1, 11-45.

Soulié, M., 1980, "Littérature populaire et propagande de la Réforme", *Bulletin de l'Association d'Étude sur l'Humanisme, la Réforme et la Renaissance* 11-2, 167-174.

Vinson, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia.